

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Irudimena, baliabideak eta galerari aurre egitea



**Don Inorrez.**  
Bide Ertzean.  
Gaztelupeko Hotsak.  
Iraupena: 43'34".  
10 euro.

BADIRA HAINBAT URTE Tolosako Ubeda anaiek gidatutako taldeak Euskal Herriko pop-rockean letra larriz idatzitako kantak egiten dituela. Joserra Senperena eta Fran Iturbe mustrak dira, baina ibilbidean izugarri ikasi dute guztiek. Aurreko erronkak handiak izan baziren ere, oraingoan Senperenak gidatutako hari-orkestra batekin lan egiteko aukera izan dute eta *Lizarbakar* moduko kanta ederrekin udazkena jantzi dute. Horrez gain,

baina, *Zurekin dantzatu nahi nuke*n poparekin, harizko instrumentuekin eta erritmoekin jolastu dute. Bada, baita, country pieza atseginik, pop-folk kanta biluzi bezain ederrak, erritmo eta intentsitate oso bereziak... Jantzi, tonalitate eta sentsazio oso desberdina, baina batez ere, gero eta gehiago disfrutatzen dutela transmititzen dute eta hori ezin da ezkutatu.

[www.bidertzean.com](http://www.bidertzean.com)

**Imanol Ubeda - Bide Ertzean**

## «Sofistikazioak edo epikak ez du beti kanta ontzen; alderantziz, esango nuke»

“Argia itzaltzen da zalan-tzen itsasoan”. Betidanik tartean idazle lagunei esker asko zaindu dituzue hitzak; baina dagoe-neko zuek ere, idazten eskarmentu handia hartu duzue... Gero eta erosoago sentitzen zarete hitzak egiten?

Egia da doinuak lantzen erosoago egoten garela eta testuekin izaten ditugula zalantza handienak. Gure diskoetan, hainbat poema musikatu izan dugu.

Baina oro har, guk geuk idatzitako testuak gehiago dira. *Non dira* diskoa izan zen denetan zailena. Gureak dira disko horretako testu denak eta 36ko Gerrari buruzko hitz horiek idazten denbora asko eman genuen. Baina ordainetan, jende askoren esker ona bildu genuen; bereziki, gerraren eta diktaduraren ondorioak zuzenean edo zeharka pairatu zutenen aldetik.



**Esango nuke ausentzia dela disko honen ildo nagusienetakoa. Berau inspirazio iturri indartsua izan ohi da, ezta?**

Funtsean, itzali den maitasun bati egindako kantak dira nagusi *Don Inorrez*en. Horrelako egoeran zaudenean, ausentzian erreparatzea ia saihestezina dela esango nuke. Nik uste inspirazio iturri baino gehiago, barrutik gogor jotzen zaituen

harra dela galerarena. Eta gitarra batekin eta boligrafo batekin harrapatzen bazaitu, ausentziak eragindako ajea nekez utzi ahal izango duzu albo batean.

Pieza orkestraletatik aparte, badira oso kantu intimoak, folkyak, biluziak...

Gure kasuan, kantak oso oinarrizkoak dira. Gero eta gehiago. Jatorrian ere, hala direlako.

Ez dugu hori onartzeko inolako erreparorik. Musikari handiak ditugu taldean baina kanta dago beti ororen gaineratik, edonoren gaineratik. Grabazio estudioan, maiz, konponketa eder asko utzi ditugu albo batean, kanta elementu soiletara mugatuz. Nire uste apalean behintzat, sofisticazioak edo epikak ez du beti kantua ontzen. Alderantziz, esango nuke. ■